



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Espediente zk.: 2023SZUZ0028

Erreg. data: 2023/01/31

Erreg. zk: 002022

Gaia: 2023 Dejabu dirulaguntza zuzena

Eskatzailea: DEJABU KULTUR ELKARTEA

NAN(IFK): G75036731

Kokalekua: ERRETERIA

Dekretu zk.: 2023/1044

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut, Kulturako Zinegotzi delegatuak 2023ko apirilak 28eko datan, ondorengo dekretua eman duela:

AURREKARIAK

DEJABU KULTUR ELKARTEAK jarduerak sustatzen ditu Errenterian.

Elkarte horrek ekintzak antolatzen ditu, herriaren kulturari nahiz herriaren izen onaren hedapenean eragina dutenak.

Udalak ekintza horiek interesgarritzat dituen heinean, bultzatzea erabaki zuen, diruz lagunduz. Helburu horrekin, aurtengo aurrekontuan partida bat sortu zuen elkartearen izenarekin.

Dirulaguntza aurreikusia dago dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Hauek dira Dejabu Kultur Elkartek Errenterian gauzatzen dituen helburuak:

- Euskal antzerkigintzan sorkuntza garaikidea sustatzea.
- Arte jarduera ezberdinen arteko elkarlana sustatzea.
- Antzerkitik abiatuta, herritarren artean kultur zaletasuna sustatzea eta herritarrak kulturarekiko sentsibilizatzea.
- Arte eszenikoekin zerikusia duten disziplinen formakuntza bultzatzea.
- Arte eszenikoen inguruko komunitatea sortu eta gure herrira hurbildu.

DEJABU KULTUR ELKARTEAK 2023. urterako proiektu bat aurkeztu du 96.565,28 euroko aurrekontua duena.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

- Kultura departamentuko teknikariak 2023ko apirilak 13an emandako txostena.

Kontu-hartzaileak 2023ko apirilak 27ko datan espedientea fiskalizatu du,

ZUZENBIDE OINARRIAK

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta udal aholkulari juridikoa espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- DEJABU KULTUR ELKARTEari 42.000,00 euroko dirulaguntza ematea 2023. urtean zehar bere proiektua gauzatu dezan.

2.- 42.000,00 euroko gastua konprometitzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1 0830.481.10.334.10 2023 (8925) partidaren kontura, AD1439-2023.

3.- Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

- 70%, 29.400,00 euro, ebatzi eta hilabeteko epean.
- 30%, 12.600,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, betiere Udalak justifikazioa nahikotzat jotzen badu (sail edo azpisaileko teknikaria, kontuhartzailea eta dagokion zinegotzi delegatua).

4.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta Udalaren gardentasun atarian argitaratzea dirulaguntzaren honako datuak: zenbatekoa, xedea eta erakunde onuradunaren izena.

Dirulaguntza arautzen duten oinarriak ERANSKINA I gisa eransten da.



ERANSKINA I

ERRETERIAKO UDALAK ZUZENeko DIRULAGUNTZA EMATEA DEJABU KULTUR ELKARTEARI

AZALTZEN DU:

II.- Dejabu Kultur elkarteak Errenterian gauzatzen ari den jardueraren helburuak ondorengoak direla:

- Euskal antzerkigintzan sorkuntza garaikidea sustatzea.
- Arte jarduera ezberdinen arteko elkarlana sustatzea.
- Antzerkitik abiatuta, herritarren artean kultur zaletasuna sustatzea eta herritarrak kulturarekiko sentsibilizatzea.
- Arte eszenikoekin zerikusia duten diziplinen formakuntza bultzatzea.
- Arte eszenikoen inguruko komunitatea sortu eta gure herrira hurbiltzea.
- Udalarekin elkarlanean aritzea komunean diren kultur estrategiaren helburuak erdiesten.

III.- Dejabu Kultur elkarteak gauzatzen dituen ekintza pedagogiko eta sentsibilizazio lanek Arte Eszenikoen programazioaren osagarri garrantzitsua izanik, onuragarritzat jotzen da Dejabu Kultur elkarteak Errenteriako Udalaren konpainia egoiliarra izatea.

IV.- Kultura saileko Zinegotzi Ordezkararen Dekretuaren bidez, 2023ko apirilak 28koa, erabaki da Dejabu Kultur Elkarteari zuzeneko dirulaguntza nominatiboa ematea. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-.
- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntza honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2023/1044 dekretuaren bidez emaniko dirulaguntzarekiko. Dirulaguntza horren xedea da Dejabu Kultur Elkartaren proiektua finantza dadin eta, modu horretan, aldeek baldintzak eta konpromisoak eratu ditzaten.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 42.000,00 eurokoa izango da; baimendu eta xedatu egingo da



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

aurrekontuko 1 0830.481.10.334.10 2023 (8925) partidaren kontura, AD1439-2023. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2023 urterako.

Hirugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak.

Dirulaguntza honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Dejabu Kultur elkarteari 42.000,00 euroko dirulaguntza ordainduko da, eta era honetan:

% 70, 29.400,00 euro, ebatzi eta hilabeteko epean.

% 30, 12.600,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren..

b) Errenteriako Udalak baimena emango dio Dejabu Kultur elkarteari ondorengo instalazioak erabil ditzan. Erabilera hau, beharren arabera eta, kasuan-kasu, Kultur Azpisaila edo Herri Arte Eskolarekin koordinazioan antolatuko da:

- Entsegu-gela. Herri Arte Eskolarekin koordinazioan antolatuko da erabilera hau, eta koordinazio hau Kultura Azpisailaren bidez kudeatuko da. Dejabu Kultur elkarteak gela hori erabiltzeko aukera izango du, betiere erabilgarritasunaren arabera.

- Niessen Auditorioa eta Lekuona Fabrikako Sorlekua. Erabilera, Kultura Azpisailarekin koordinazioan antolatuko da, betiere erabilgarritasunaren arabera. Dejabu Kultur elkarteak aukera izango du areto horiek erabiltzeko, emankizunak prestatu, formazio saioak antolatu edota mediazio jardueren antolaketa.

c) Dejabu Kultur elkartearen esku uztea Niessen Kulturguneko eta Lekuona Fabrikaren espazio eszenikoetako laguntza teknikoko zerbitzuak, gehienez urtean 20 orduz; halaber, aukera izango dute beren obrak produzitzeko eta entseatzeko beharrezko elementu teknikoak erabiltzeko. Egutegia eta espazioak erabiltzeko baldintzak aurrez adostu beharko dituzte Dejabu eta Kultur Azpisailaren arduradunek. Laguntza teknikoko zerbitzuak ere lan-egutegi eta lan kargaren arabera erabili ahalko dira betiere.

Laugarrena: Dirulaguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.

Dirulaguntza honi jarraiki dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Errenteriako konpainia egoiliar gisa, Arte Eszenikoen sorkuntza eta sentsibilizaziorako proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua dirulaguntza honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.

Horren baitan:

- Konpainiak bere sorkuntza prozesuen emaitza diren antzezlanak Errenterian estreinatzeko konpromisoa hartzen du (ko-ekoizpenak ez diren kasuan).

- Konpainiak bere sorkuntzatik Errenterian eta Errenteriatik kanpo garatzen duen proiektu artistikoa ahal bezainbeste eragin ekartzea herritarrei.

- Arte Bizien arloan euskarazko hezkuntza garaikidea bultzatzeko formakuntza espezializatua eskainiz ikastaro trinkoak antolatuko ditu.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Ordenantzen 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.
- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.
- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.
- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.
- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.
- Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.
- d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.
- e) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatziari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin aldeztu aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jartzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun



ERRENTERIA
UDALA
Kultura / Cultura

bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak ere.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

g) Ingurumenaren alorreko klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

h) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irriti, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzat, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu horretan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

i) Onuradunak, proiektua gauzatzeko, 15.000,00 euro edo gehiagoko zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituztenean (BEZik gabe) gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Nolanahi ere, salbuetsita geratzeko dira, zerbitzu edo horniduraren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan zerbitzu hori hornitzen edo ematen duten nahikoa erakunde ez badago, edo gastua egin bada diru laguntza eskatu aurretik.

Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa (justifikatzeko dokumentazioarekin batera ekarri beharko dena) eraginkortasun eta ekonomiako irizpideen arabera egingo da; eta, proposamen ekonomikorik onena hautatu ez bada, memoria batean berariaz justifikatu beharko da erabakia.

Bostgarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Errenteriako Udalak, Kultura saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2024ko urtarrilak 31n, Udalean aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da eta horien erregistro grafikoa, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den



ERRENTERIA UDALA

Kultura / Cultura

diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Justifikazioan sartu ahal izango dira langile-gastuak. Gastu horiek izango dira ordainsarien gastuak (PFEZaren konturako atxikipena barne) eta ordainsari-gastu horiei dagokien Gizarte Segurantzako enpresa-kuota. Aipatutako gastuak zuri-eraketan sartu ahal izateko aurkeztu beharko dira langileen nominak, ordainketen egiaztagirak, PFEZaren atxikipenak ordaindu izanaren egiaztagirak, kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta langileen zerrenda.

Seigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Dirulaguntza honek arautzen duen dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo dirulaguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zazpigarrena: Dirulaguntza Zuzenaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, dirulaguntza hau aldatzea ezarritako epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen denean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak dirulaguntza hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, dirulaguntza hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Zortzigarrena: Dirulaguntza Zuzenar ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute dirulaguntza bertan behera uztea edo etetea.

Bederatzigarrena: datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoa betetzea.

Hamargarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura

Hamaikagarrena: Araubide Juridikoa.

Dirulaguntza honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Dirulaguntza honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal Ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamabigarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.

NON: dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegia.

LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

No obstante, con caracter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkaria

Stua: Nagore Sarasola Otermin



**ERRETERIA
UDALA**
Kultura / Cultura



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUa7b1dabc-98e9-4963-9548-ad0cb1d0aa0f**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023SZUZ0028-JAKINARAZPENA/NOTIFICACIÓN (DEJABU KULTUR ELKARTEA)